



Saioa irekia

Zein da gure ekimen artistiko eta kulturalen balio pedagogikoa?

2023ko uztailaren 11



Sesión abierta

¿Cuál es el valor pedagógico de nuestras iniciativas artísticas y culturales?

11 de julio de 2023

K
BUL
EGO
A



Saioa irekia

Zein da gure ekimen artistiko eta kulturalen balio pedagogikoa?

Saio irekiaren kontakizun bat.

Uztaileko egun lanbrotu batean, 10 bat lagun bertaratu ginen kulturaz, arteaz eta pedagogiaz solastatzera. Beti bezala hainbat diziplinatan aritutako kulturgileak hurbildu zitzaizkigun Santa Teresa komentura. Zinema, antzerkigintza, literatura, arte plastiko, kultur hezkuntza eta bitartekaritza alorretako uretan murgildutakoak ziren, eta ikuspuntu osagarri eta inspiratzaileak zekartzaten soinean. Eta hori gutxi balitz bezala, gainera Gipuzkoako hainbat herritatik zetozen.

K bulegoa aurkeztu genuen hasteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arreta eta bidelaguntza zerbitzua kultur sektorearentzat, eta berehala mahai gainean mimoz eta limoi freskoek egindako limonada eta zuntz eduki handiko gailetak jarri genituen, baita hausnarketa gazi-gozo pare bat ere ahozeruan eta buruan bizitasuna eragiteko nahiaz.

Lehenengo hausnarketa. Kultur sistemak garapen sortzaile eta iraunkorra edukitzeko baditu hutsune eta zailtasunak. Hezkuntza sistemak, ezbairik gabe, urteak daramatza zalantzan jartzen bere oinarriak, eta hamaika moldaketa zein berrikuntza jasotzen eremu askotatik. Orduan, artea eta kultura hezkuntza eremura eramatean, zer testuingururi egin behar dio aurre?

Bigarren hausnarketa. Hezkuntza sistema osotasunean hezkuntzara dago antolatuta, ikaskuntzara baino gehiago. Hemen Chillida goraiatu genuen, hark baitzioen artea ezin zela irakatsi.

«Ez dut arte-irakaskuntzan sinesten. Artea ikas daiteke, baina ezin da irakatsi. Norberak ez dakiena jakiteko nahiak sekulako boterea du. Nahi horrek edozer gaindi dezake. Alegia, nik irakaskuntza errespetatu egiten dut, baina nire ustez, irakaskuntzan sinplifikazio-gauzak egon daitezke eta nik gauza horiek baztertzen ditut. Nire ustez, artean irakats daitekeena ez da funtsezkoa, funtsezkoa ezin baitizu inork irakatsi, funtsezkoa zuk zeuk ikasi behar duzu».

Nola neur dezakegu balio pedagogikoaren inpaktua? Nola balio ukiezinak?

Kultura eta hezkuntza eremuetan ekarpenak egitera sartzen garenean, baditugu bestelako zailtasunak eta hari horri tiraka aritu ginen hasierako minutuetan.

Hezkuntzako profesionalak estututa dabilenez, zaila da kultur egitasmoak eskola eremuetan txertatzea. Horregatik, jarduera gehienak eskola orduz kanpo eskaintzen dira. Hezkuntza legeek, antzinakoek zein berriagoek, non kokatzen dute ikaskuntza artistikoen balioa? Balio pedagogikoa esan nahi baita. Tamalez, urriak dira arte ezagutzak irakasten dituzten profesional adituak.

Honako beste hausnarketa hauek ere piztu ziren:

Nola arte sorkuntzaren lanketan, sarritan lantzen diren giza garapenarekin zerikusia duten gaiak, hala nola harremanak, elkar sorkuntza edota norberaren gaitasunen garapena. Horrek nola eragiten du inguruan? Orain psikologiaren eremutik, adimen emozionala lantzeari heldu zaio. *Coaching* eta bestelako metodologiak erabiltzen dira, artearen lanketa modu azalekoago edo estetiko batean ulertuz baina.

Berrikuntzatik ere lantzen da. Oro har, gaitasun sortzailea garatzeko lekua kentzen zaio, arreta handiagoa jartzen baita ekoizpen gakoetan. Formula desberdinak garatzen dira, baina arte praktiken balio pedagogikoa alde batera utzita eta zalantzan jarriz.

Gure lanaren iraunkortasunerako, eskuarki sorkuntza artistikoaz gain, formazioan, bitartekaritzan zein dibulgazioan murgildu behar dugu, eta sarri ez dugu ezagutza nahikorik ikaskuntza esperientziak behar bezala eragiteko.

Denbora egoki kudeatzea ere oso garrantzitsua da, lanketa konplexuek eskatzen duten denbora tarteak lortu eta ikaskuntza esperientziak sortzen dituzten ekimen politak asmatu eta abiarazteko.

Gakoetako bat da arte eta kulturatik proposamenak egitea curriculumaren nahiko edo modu egokian lantzen ez diren gaiei erantzuteko.

Zeinen zaila den lanketa handiak eskatzen dituzten ekimen txikiak egitea, eta ekimen horien iraunkortasuna bermatzea. Horrela, eskola orduz kanpoko saio gutxi batzuetan eta denbora tarte oso murriztean desio dugun eta eskatzen zaigun lantzen ez diren gaiak eta beharrak asetzea, balio nahikorik eman gabe eskaintzen denari.

Hutsunea ere antzematen da hezkuntza eremu formal zein ez formaletan, artea eta kultura zabaltzean teknikak duen presentzia eta sorkuntza prozesuen lanketa alderatzean.

Erronketako bat litzateke arteari zilegitasuna aitortzea, ezagutza desberdinak arakatu eta praktikatzeko aukera aberasgarriak eskaintzen baititu arteak; izan ere, hainbat diziplinaren praktikak bizitzaren arlo desberdinetarako ezagutza garrantzitsuak modu berezian barneratzeko aukera ematen digu. Are gehiago, artearen sorkuntzan nahiz garapen prozesuan hain beharrezkoak diren ikerketa artistikoak eta esplorazioak egiteko modu bereziak ematen dizkigu, adibidez, gai bati buruzko gakoak barneratzeko, matematikan, biologian, astrologian, eta abarrear.

Administrazioak ere nola zailtzen dituen prozedurak, ekimenak arin eta sormenez gerta daitezen beharra sortzen den unean.

Gu geu jabetu egiten gara ekimenen balio pedagogikoaz, baina batzuetan ez dugu behar bezala komunikatzen, ez dugulako denbora nahikorik hartzen eta beste batzuetan gure ekimenak ez duelako harrera egokia izaten zenbait gunetan edo erronkaren lanketan aurrean. Batzuetan, zuzenegiak direlako, beste batzuetan, sakonak, ausartak, desberdinak, esperimentalak edo aurretik egiaztatu gabeak direlako. Egoera horietan komunikazio egokia erdiesteko zer garrantzitsua den oreka mantentzea eta lengoia egokiak erabiltzea. Ez ditzagun sobera poetikoak diren hitzak bakarrik erabili, eta maizago egin dezagun inklusioa eta ulermenaren mesedetan hitz argi eta ulergarrien alde.

Kontzientzia hartzearen garrantziak ere nola eramaten gaituen ikusezinak diren pedagogien ezagutza batera. Nola zaindu ditzakegun gure praktikaren garapenerako lagungarriak diren baldintza ikusezin eta ikusgarrien lanketak. Sarritan badira hitz, modu edo ohiturak zeinek aurreiritziak sortzen dituzten eta gure ekimenak egin ahal izateko aukerak murrizten dituzten.

Bertaratu ziren eragileen ibilbidean erreferentziazko esperientzia inspiratzaileak zeudenez, nor bere egitasmoa aurkeztu zuen prozesuaren balioa eta proiektuak sendotzeko gakoak partekatzeko.

Esaterako, Iurgi Etxebarriaren ufala!! programa ikasleei ikuskizun bat sortzen laguntzen die; lehen-lehenik talde bat sortuz. Ondoren, ideiak sortuz eta proposamenekin jolasean, irudimena lantzen dute, bai norbanakoarena, bai taldearena. Ikasleek talde bat osatu eta aktibo daudenean, hainbat gaitasun transmititzeko zailtasunekin egiten dute topo.

Beraz, behar dituzten trebezia ugari lantzen erakusten zaie. Antzetzten dutenean, programan bizitako ibilbide guztia sentitzen dute eta pozez betetzen dira, talde-lanean aritzea zein ederra den sentitzen baitute beren barnean.

Xabi Salaberriak, aldiz, haurrentzako hainbat ekimenen berri eman zigun, filosofiaren bitartez pentsamendu kritikoa, sortzailea eta zaintzalea lantzea dute xede. Anaiarekin sortu zuen 1545 izeneko argitaletxea eta zenbait herritan martxan jartzen ari diren guneek hitz egin zuen. Gainera, Salaberriak, hiru pentsalari ekarri zituen hizpidera (Matthew Lipman, Ann Sharp eta Angélica Sátiro) eta horien ildoan ondutako Noria proiektua, hezkuntza eta argitalpenak ardatz dituen erreferentziazko ekimena.

Saioari amaiera emateko, parte hartzaileek identifikatuak dituzten beharrak partekatu zituzten, kultur ekimenen balio pedagogikoa zaindu eta garatzeko eta haiei dagokien zilegitasuna lortzeko itzaropenez.

Honakoa ere azpimarratu zuten, hezkuntza eremu desberdinek, bai formalek bai ez formalek, museoa ikaskuntza esperientzia aberatsak ahalideratzeko gune bezala ulertzea garrantzitsua dela adierazi, eta ikuspuntu horretatik, elkarlanerako aukera gehiago sortzea beharrezkoa dela.

Askotan, zaila da eskola eremuetan ekimen artistiko eta kulturek behar bezala garatzeko baldintza egokiak aurkitzea, hortaz, baldintza eta espazio duinak, esaterako, zikin daitezkeen gelak.

Interesgarria litzateke zer gai lantzen diren lurraldean ezagutzea, hezkuntza eremu formal eta ez formalean, horrela erakunde edo eragileek sortzen ditugun ekimenak, errepikakorrak baino gehiago, osagarriak izan daitezken.

Ezagutu behar da publikoak benetan zer nahi eta behar duen, hori jakiteko moduak garatuz eta barneratuz.

Oinarrizko lanketa batzuk guk geuk egin behar ditugunez, erreparatu behar genieke hartzen joan garen ohitura batzuei, gure artean sareatuagoak egoteko. Horrela ezagutzak partekatu eta elkarrekin eskaintza aberasgarriagoak eskainduko genituzke.

¿Cuál es el valor pedagógico de nuestras iniciativas artísticas y culturales?

Un relato de la sesión abierta.

En un día brumoso de julio, unas 10 personas nos reunimos a conversar sobre cultura, arte y pedagogía. Como casi siempre, se acercó un grupo heterogéneo al convento de Santa Teresa, un grupo de *kulturgiles* que se desempeñan en diferentes disciplinas: cine, teatro, literatura, artes plásticas, educación cultural y mediación, con enfoques complementarios e inspiradores. Y por si fuera poco, venían de varios municipios de Gipuzkoa.

Comenzamos con la presentación de **K bulegoa**, la oficina de atención y acompañamiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el sector cultural. Enseguida pusimos encima de la mesa un par de estimulantes reflexiones acompañadas de una limonada refrescante y galletas de alto contenido en fibra con el objetivo de excitar la mente y el cielo de la boca.

Primera reflexión. Las carencias y dificultades del sistema cultural para un desarrollo creativo y sostenible. ¿El sistema educativo lleva años cuestionando sus bases y recibiendo múltiples adaptaciones e innovaciones? Entonces, al llevar el arte y la cultura al ámbito educativo, nos encontramos con qué contextos.

Segunda reflexión. El sistema educativo en su conjunto se organiza más hacia la educación que hacia el aprendizaje. Aquí ensalzamos a Chillida, que decía que el arte no se puede enseñar.

“No creo en la enseñanza del arte. El arte se puede aprender, pero no enseñar. El deseo de saber lo que uno no sabe tiene un poder inmenso. Ese deseo puede con todo. Eso explica un poco que yo respeto la enseñanza, pero creo que en la enseñanza puede haber cosas de simplificación y yo las rechazo. Creo que lo que en arte se puede enseñar no es fundamental, lo fundamental no te lo puede enseñar nadie, lo tienes que aprender tú”.

¿Cómo medir el impacto del valor pedagógico? ¿Y cómo los valores intangibles?

Cuando nos adentramos a hacer aportaciones en los ámbitos cultural y educativo tenemos otras dificultades y de eso hablamos en los primeros minutos.

Integrar proyectos culturales en los espacios escolares es difícil ya que las profesionales de la educación están desbordadas. Por ello, la mayoría de las actividades se ofertan fuera del horario escolar. ¿Dónde sitúan las leyes educativas, las antiguas y las más recientes, el valor de los aprendizajes artísticos, es decir, su valor pedagógico? Desgraciadamente, son pocas las profesionales expertas que aportan conocimientos artísticos.

Otras reflexiones vertidas durante la sesión fueron:

Cuestiones relacionadas con el desarrollo humano que se abordan con frecuencia en la elaboración de la creación artística, como las relaciones, la creación mutua, el desarrollo de las propias capacidades. ¿Cómo influye esto en el entorno? Ahora, desde el ámbito de la psicología se trabaja la inteligencia emocional. Desde el coaching y otras disciplinas, pero se trata de una aproximación más superficial y estética del arte.

También se trabaja desde la innovación. En general, se le quita espacio al desarrollo de la capacidad creadora, porque se pone más atención en las claves productivas. Se desarrollan diferentes fórmulas dejando de lado y cuestionando el valor pedagógico de las prácticas artísticas.

Para contribuir a la sostenibilidad de nuestro trabajo, además de la creación artística, debemos sumergirnos en la formación, la mediación y la divulgación, y a menudo no disponemos de conocimientos suficientes para que la experiencia de aprendizaje influya adecuadamente.

También es importante gestionar el tiempo adecuadamente para obtener los tiempos que requieren los trabajos complejos y para idear y trabajar iniciativas bonitas que generan experiencias de aprendizaje.

Una de las claves es hacer propuestas desde el arte y la cultura para responder a cuestiones que no se abordan de manera suficiente y adecuada en el currículo.

Es difícil hacer pequeñas iniciativas que requieren grandes esfuerzos y garantizar su sostenibilidad. Así, en unas pocas sesiones fuera del horario lectivo y en un periodo de tiempo muy reducido se espera que se cubran temas y necesidades que no se abordan de otra manera y que se ofrecen sin valor suficiente.

Desde diferentes ámbitos educativos, tanto formales como no formales, se señala la importancia de entender el museo como un espacio para posibilitar experiencias de aprendizaje enriquecedoras, y desde ese punto de vista se subraya la necesidad de crear más oportunidades de colaboración.

Uno de los retos es conseguir legitimar al arte, porque ofrece posibilidades enriquecedoras de explorar y practicar distintos conocimientos. La práctica de diferentes disciplinas nos permite interiorizar de manera especial conocimientos relevantes para los diferentes ámbitos de la vida. Es más, nos permite realizar investigaciones artísticas y exploraciones tan necesarias tanto en la creación como en los procesos de desarrollo artísticos para interiorizar las claves de un tema, ya sean en matemáticas, biología, astrología, etc.

A menudo, la Administración dificulta los procedimientos para que las iniciativas se produzcan con agilidad y creatividad en el momento en que surge la necesidad.

Somos conscientes del valor pedagógico de nuestras iniciativas, pero a veces no lo comunicamos adecuadamente, porque no tomamos el tiempo suficiente y otras veces no tienen una acogida adecuada. Porque son demasiado directas, o bien profundas, valientes, diferentes, experimentales o sin el suficiente rodaje. Es muy importante mantener el equilibrio y utilizar los lenguajes adecuados para conseguir una buena comunicación en estas situaciones. No caigamos en palabras poéticas, y hagamos un esfuerzo más decidido a favor de la inclusión y la comprensión utilizando palabras de uso común que faciliten un entendimiento más claro.

La importancia de la toma de conciencia nos lleva a un conocimiento de algunas pedagogías que no están visibles. Cómo podemos cuidar las condiciones, las que no se ven a simple vista y las visibles, para que ayuden en el desarrollo de nuestra práctica. Porque a menudo hay palabras, modos o costumbres que generan prejuicios y reducen las posibilidades de desarrollo de nuestras iniciativas.

Con una trayectoria repleta de experiencias inspiradoras de referencia, aprovechamos para que cada una de las personas asistentes presentara su proyecto y compartir así el valor del proceso y las claves para consolidar los proyectos.

Por ejemplo, Iurgi Etxebarria a través del programa ufala!! ayuda a los alumnos a crear un espectáculo, primero creando un grupo. Después, al generar ideas y jugar con propuestas, trabajan la imaginación, tanto individual como colectiva. Cuando el alumnado forma un grupo y está activo, se encuentran con dificultades para transmitir diferentes capacidades.

Por esa razón, se les enseña a trabajar muchas habilidades que necesitan. Cuando actúan, sienten toda la trayectoria vivida en el programa y se llenan de alegría, ya que sienten en su interior lo bello que es trabajar en equipo.

Por su parte, Xabi Salaberria nos habló de diversas iniciativas destinadas al público infantil, con las que a través de la filosofía trabaja el pensamiento crítico, creativo y cuidador. Fundó con su hermano la editorial 1545, y nos dio a conocer los espacios que se están poniendo en marcha en algunos municipios.

Además, Salaberria trajo a colación la figura de tres pensadoras (Matthew Lipman, Ann Sharp y Angélica Sátiro) y en relación con su pensamiento citó el proyecto Noria, una iniciativa de referencia centrada en la educación y las publicaciones.

Como colofón a la sesión, las personas participantes compartieron las necesidades identificadas con la esperanza de preservar y desarrollar el valor pedagógico de las iniciativas culturales y conseguir así la legitimidad que merece la práctica artística.

Desde diferentes ámbitos educativos, tanto formales como no formales, se señala la importancia de entender el museo como un espacio para posibilitar experiencias de aprendizaje enriquecedoras, y desde ese punto de vista se subraya la necesidad de crear más oportunidades de colaboración.

En muchas ocasiones es difícil encontrar en los espacios escolares las condiciones adecuadas para que las iniciativas artísticas y culturales puedan desarrollarse adecuadamente, condiciones y espacios dignos, como por ejemplo, clases que se pueden ensuciar.

Sería interesante conocer qué temas se trabajan en el territorio, en el ámbito educativo formal y no formal, para que las iniciativas que creamos las instituciones o agentes, más que repetitivas, sean complementarias.

Hay que conocer lo que realmente quiere y necesita el público, desarrollando e interiorizando las formas de saberlo.

Como algunos de los quehaceres básicos los tenemos que asumir nosotras mismas, deberíamos fijarnos en algunos de los hábitos que hemos ido adquiriendo para conseguir que nosotras estemos más conectadas. Así compartiríamos conocimientos y ofreceríamos de manera conjunta propuestas más enriquecedoras a la sociedad.